



2024KO APIRILEAN, URAREN KUDEAKETAN ETA GALERAN ADITU DIREN MUNDU GUZTIKO ESPEZIALISTAK BILDUKO DIRA DONOSTIAN

Donostiako Kursaala *Water Loss* konferentziaren egoitza izango da, 2024ko apirilaren 14tik 17ra. Bertan, kontabilizatu gabeko uraren (galera) kudeaketan izandako aurrerapenak, teknikak eta estrategiak aurkeztuko dira. 2002. urteaz geroztik, bi urtez behin antolatzen du konferentzia hau Ur-galeretako Espezialisten Taldeak (WLSG). Hain zuzen ere, ur-galerei buruzko munduko konferentziarik garrantzitsuenak da. Azken edizioa Pragan izan zen.

Donostiako saioetan, aztergai izango dituzte, besteak beste, ihesak atzemateko azken teknikak, sarearen monitorizazioa, ura neurtzeko sistemak, sareetan adimen artifiziala erabiltzeko modua eta uraren kudeaketa, bai eta arlo honetan munduan izan diren arrakasten eta porroten analisia ere.

Donostiako konferentziaren webgunean (<https://www.waterloss2024.org>) dagoeneko eskuragarri dago hitzorduari buruzko informazioa, eta adituek eta profesionalak jadanik aurkez ditzakete beren hitzaldiak, eztabaida-proposamenak, tailerrak eta mahai-inguruak.

Talde antolatzailea IWA Uraren Nazioarteko Elkarteko aktiboenetako bat da. Haren buru Stuart Hamilton (Erresuma Batua) da, eta 17 herrialdetako 20 kidek osatutako kudeaketa-batzorde bat du. Mundu guztiko 3.500 profesional baino gehiago ari dira lanean bost kontinenteetako ur-galerak murrizten eta kudeatzen.

Donostiako hitzorduari begira (mundu guztiko 350 espezialista inguru bertaratzea espero da), batzorde antolatzaile bat eratu da, Fernando Pérez Donostiako Udaleko Uren Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuaren burua gidari dela, eta honako hauen laguntza izango du horretarako: Francisco Arregui (Valentziako Unibertsitate Politeknikoa), Maddi Garmendia (Euskal Herriko Unibertsitate Politeknikoa), Andrés Martínez (Donostiako Udala), Fernando Morcillo (AEAS), Cristina Lagé (Donostiako Udaleko zinegotzia) eta Ainhoa Lete (BuntPlanet).

Gainera, konferenziaren programa-batzorde bat ere sortu da. Batzorde horren burua Roland Liemberger (Austria) da, eta kide hauek osatzen dute: Milene Aguiar (Brasil), Ricardo Cobacho (Espainia), Mary Ann Dickinson (AEB) dira kideak. Stuart Hamilton (Erresuma Batua) Cor Merks (Herbehereak), Raúl Navas (Espainia) eta Gary Wyeth (Thailandia).

DONOSTIAKO DATUAK

Donostiak 465 kilometro hodi ditu guztira, eta 13.193 hartune, guztira, hodi horien ibilbide guztian zehar.

Joan den urtean bakarrik, 14 milioi metro kubiko ur gastatu ziren hirian. Hiriko ura banatzeko sarearen errendimendua ezin hobea da, % 86 inguru, eta, beraz, ur-galerak % 14 inguruko dela kalkulatu da; horietatik % 9,2 benetako galerak dira, matxurek, hartuneekn eta gainerakoek eragindakoak; eta gainerako % 4,8a, berriz, irakurri gabeko kontagailuek sortutako itxurazko galera da, neurketetan izandako akatsek edo sareko iruzurrek eragindakoa.